

# Haurren txertoak: guztiek egutegi bera azkenean

Autonomia erkidego guztietan berbera izango da neska-mutilak immunizatzeke agenda berria

Haurrek txerto dezente hartu behar izaten dituzte lehen urteetan. Orain arte, autonomia erkidego bakoitzak bere egutegia izan du, baina Espainiako Osasun Ministerioa eta autonomia erkidegoak ados jarri dira, eta aurrerantzean guztientzat berbera izango da haurrak txertatzeko egutegia. 2014. urtetik aurrera hasiko dira horrekin.

## Haurren txertoak: nola funtzionatzen dute?

Txertoak prebentzio-neurriak dira, haurrak gaixotasun arriskutsuetatik babesteko: hepatitis, poliomielitisa eta meningitisa, besteak beste. Injekzio horiek izaten duten prestakinak iratzargailu gisa jokatzen du organismoaren defentsentzat. Aktibatu egiten da haien immunitate-sistema, eta prestatu egiten da gaixotasunen batek erasota ere babesteko. Espainiako Estatuan ez da nahitaezkoa txertoak hartzea, baijina aditu gehienek jartzeko gomendioa egiten dute. "Txertoekin, haurrek aurre hartzen diete infekzio bidezko gaitzei eta aktibatu egiten dute beren organismoa, gaitz horien kontrako defentsak sor ditzan", azaltzen du Espainiako Pediatria Elkarteak.

## Haurrak txertatzeko egutegi bat eta bakarra

Haurrak immunizatzeke egutegiak lagundu egiten du haurrak babesten gaixotasun larrien arriskutik. Autonomia erkidego bakoitzak bere txerto-egutegia izan du orain artean, baina 2014. urtetik aurrera ez da hala izango: egutegi bat eta bakarra izango dute guztiek.



## Haurrak txertatzeko egutegi bateratua

Lurraldearteko Batzordeak 2013ko martxoaren 21ean onartua

TXERTOAK	0 hilabete	2 hilabete	4 hilabete	6 hilabete	12 hilabete	15 hilabete	18 hilabete	3 urte	4 aurre	6 urte	10 urte	11 urte	12 urte	13 urte	14 urte	15 urte
<b>Poliomielitisa</b>		PIB1	PIB2	PIB3			PIB4									
<b>Difteria-Tetanosa-Pertussisa</b>		DTPa1	DTPa2	DTPa3			DTPa4		dTpa						Td	
<b>B erako Haemophilus influenzae</b>			Hib1	Hib2	Hib3		Hib4									
<b>Elgorria-Erubeola-Parptiditisa</b>					HB1		HB2	HB2	HB2							
<b>B hepatitis (a)</b>	BH1(a)	BH2(a)		BH3(a)												
<b>C Meningitisa Meningokozikoa</b>		CMen1			CMen2								CMen3			
<b>Baztanga (b)</b>													VVZ			
<b>Giza Papiplomaren Birusa (c)</b>																GPB©

(a) Amak birusa baldin badu, haurrak zero, bat eta sei hilabete dituen ematekoa da. (b) Gaixotasuna pasatu ez dutenei eta lehendik txertoa hartu ez dutenei, 2 dosi. (c) 14 urteko neskei jartzekoa. 3 dosi

Espainiako Osasun Ministerioa ados jarri da erkidego guztiekin, eta bateratu egin dituzte immunizatzeke programak, lurralde batzuen eta besteen arteko desberdintasunak murrizte aldera (medikuek eta pediatrek urteak daramatzate eskari hori eginez). Haurrei zer txerto eta noiz jarri behar zaien zehazten du txertatzeko egutegi bateratuak; hau da, haurren osasunerako egin den agenda horrek esaten du zer-nolako txertoak hartu behar dituzten haurrek beren bizitzan, adinaren arabera. Haurrari jartzen dizkioten txerto guztiak txertaketa-liburuxkan idazten dira, eta haurrak egutegia ongi bete duen jakin liteke dokumentu horri esker, baita hurrengo txertoa noiz izango duen ere.

## Nolakoa da egutegi bateratua?

Egutegi bateratu horrek zortzi txerto mota finkatzen ditu haur guztientzat (berdin du zein autonomia erkidegotan bizi diren). Hona hemen zein diren txerto horiek eta zein adinetan hartu behar diren.

- └ **Poliomielitisaren aurkako txertoak** lau dosi ditu. Haurrak bi hilabete dituen hartuko luke lehenengoa, laurekin eta seirekin hurrengo biak, eta 18 hilabeterekin azkena, sendogarri gisa.
- └ **Difteriaren, tetanosaren eta kuku-txeztularen aurkakoa.** Sei dositan ematen dute. Haurrak bi, lau eta sei hilabete dituen lehenbiziko hirurak. Eta sendogarri gisa, beste hiru, 18 hilabeterekin, sei urterekin eta 14rekin.
- └ **B erako Haemophilus influenzae.** Lau dositan ematen dute txertoa: haurrak bi, lau, sei eta 18 hilabete dituen.

- └ **Hirukoitz birikoa: elgorria, errubeola eta paperak.** Bi dositan banatzen da: lehenbizikoa haurrak 12 hilabete dituen, eta bigarrena, hiru eta lau urte artean.
- └ **B hepatitis.** Hiru dositan hartzekoa da: haurrak zero, bi eta sei hilabete dituen. Amak birusa baldin badu, zero, bat eta sei hilabete dituen ematen zaizkio txertoak haurrari.
- └ **Meningitisa (C meningokokoa),** hiru dositan: bigarren, seigarren eta hamabigarren hilabeteetan.
- └ **Baztanga,** dosi bat, haurrak 12 urte dituen. Gaixotasuna pasatu ez duten haurrek bi dosi hartuko dituzte.
- └ **Giza papiplomaren birusa:** neskentzat soilik da, eta 14 urtetan hartuko dute.

## Adituak, txertoen alde

Haurren osasunean aditu direnek aspalditik eskatu izan dute txertatzeko egutegi bateratua. Orain adostu den hau, ordea, ez da profesional askoren gustukoa.

Zenbait adituk eta elkarte zientifikok nabarmendu dute, tartean Espainiako Pediatria Elkarteak, adostu duten egutegia motz geratzen dela, bai dosietan eta bai ezarritako adinetan ere. Gehien entzuten den eskaria pneumokokoaren txertoa sartzea da, agenda berritik kanpo utzi dute eta (egun, Galizian eta Euskal Autonomia Erkidegoan soilik dago egutegiaren barrenean).

Baztangaren aurkako txertoarentzat jarri duten adina ere, 12 urte, kritikatu dute adituek, beranduegi dela iruditzen baitzaie: neska-mutilen %90ek pasatua izaten dute gaixotasun hori adin horretan.

www.consumer.es



## HAURREN TXERTOAK: ALDE EDO KONTRA?

Umeak txertatzeko egutegi bateratua laster abiaraziko duten arren, inor ez dago behartua haurrak txertatzera. Ezein legeg ez du behartzen, eta familia bakoitzak erabakitzen du seme-alabak txertatu edo ez. Hala ere, Osasunerako Mundu Erakundeak (OME) eta Espainiako Pediatria Elkarteak txertoak jartzeko gomendatzen dute, argi eta garbi.

Immunizatzea, izan ere, funtsezkoa da gaixotasun askoren hilkortasun-tasa murrizteko. Osasunerako Mundu Erakundeak egindako kalkuluaren arabera, txertoak emateak 2,5 milioi heriotza inguru eragozten ditu urtero mundu osoan.

Haurren osasunaz arduratzen diren adituek nabarmen dute, gainera, txertoak seguruak dira, eta zenbaitetan nahi gabeko ondorio batzuk sor ditzaketen arren (gehienez, sukar pixka bat edo negelen bat), beti da handiagoa ez jartzeak ekar dezakeen arriskua.

Badira, dena den, txertoen aurkako kolektiboak ere. Txertatzeko Askatasunaren Aldeko Liga da horietako bat, eta nabarmen dute nahi gabeko ondorioak izaten dituztela txertoek eta erreakzio alergikoak eragiten dituztela.